

Egokitu dute Ormaiztegiko liburutegia

Altzari berriak jartzeaz gain liburu, CD, DVD eta ordenagailua ere erosi dituzte liburutegia biziberritzeko asmoz.

E. IMAZ

Egokitu dute Ormaiztegiko liburutegia eta jada erabilgarri daude, ordenagailua eta liburu, CD eta DVD berriak.

Aitor Mazorriaga Ormaiztegiko Udaleko zinegotziak aipatu duenez, legealdi honetan konturatu ziren azken urte luzeetan apenas ez dela inbertsiorik egin liburutegian. Altzariak zaharkituta zeuden eta liburutegiaren erabilera aspaldian gainbehera zetorren. Egoerari aurre egiteko zenbait neurri hartzeko erabakia hartu zuten Kultura Batzordean.

Altzari, liburu, CD eta DVD berriak

Batetik, altzari berriak jarri dituzte. Behar berriei egokitutako altzariak dira eta espazio desberdinak bereiztu dituzte altzariak erabilia: haurrentzako gunea, ikasteko gunea eta ordenagailua erabiltzeko gunea. Bestetik liburuak, CDak eta DVDak erosteko aurrekontutik 5.000 euro bideratu dituzte. Azkenaldi honetan argitaratu berri diren liburu, CD, DVD eta haurrentzako ordenagailuetarako jokuak aurki daitezke orain Ormaiztegiko liburutegian, dio Mazorriagak. Orain herritarrek liburutegia erabili dezaten bultzada bat ematea da helburua.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza bati esker bi ordenagailu erosi dituzte, bat barne lanetarako. Hau da, kultur teknikariak erabili dezan eta bestea berriz, herritarrek erabili dezaten. Internet zerbitzua jarri dute bi ordenagailuetan. Mazorriagaren arabera, Haurrentzako txoko propioa eginda, taldeko lanak egiteko beste leku bat bereizita eta azkenik ordenagailu bidez kontsultak egiteko beste gunea bat egokituta, jendeak liburutegia lehen erabiltzen zuena baino askoz gehiago erabiltzea lortu nahi dugu. Hau da, azken batean liburutegia biziberritu nahi dugu.

Ormaiztegiko Kultura Batzordeko kideek herritarrei liburutegian egin dituzten berrikuntzen berri eman eta gero, San Andres eskolako ordezkariekin bildu nahi dute eskolako hurrek tresna hau ezagutu eta erabili dezaten, gaineratu du Mazorriagak.